

IPUI ONAC

(IPUIN ONAK)

Klasikoen XVIII. Irakurketa Jarraitua

ARRIAGA ANTZOKIAN

2025eko ekainaren 5ean

HELBURUA

Honako jarduera-sekuentzia honek Klasikoen XVIII. Irakurketa Jarraituaren berri eman eta Bizenta Mogelen lana ezagutzera ematea du helburu.

HELBURU ZEHATZAK

- 2025eko ekainaren 5ean Arriaga antzokian izango den Klasikoen XVIII. Irakurketa Jarraituaren berri ematea.
- Bizenta Mogel idazlea hobeto ezagutzea.
- Bizenta Mogelen garaiko gizartea ezagutzea.
- Bizena Mogelen lanaren balioa zein garrantzia azpimarratzea.
- *Ipui onac (Ipuin onak)* liburuaren garrantziaz jabetzea.
- XIX. mendeko Euskal Herriko literatura jarduera ezagutzea.
- Liburuaren zenbait pasarte irakurriz, ikasi eta gozatzea.
- Irakurketan ikasleek izango duten esperientzia errealera hurbiltzea.

  - Jarduera gehienak B2 mailatik aurrera egitekoak dira.

AURKIBIDEA

I. GONBITA: KLASIKOEN XVIII. IRAKURKETA JARRAITUA (B1) 4. or.

II. KLASIKOA LITERATURAN 5. or.

III. ZER DA ALEGIA? 6-7. or.

IV. ALEGIAREN EZAUGARRIAK 7. or.

V. BIZENTA MOGEL TA ELGEZABAL 8-9. or.
Nor da Bizenta Mogel?

VI. IPUI ONAC (Ipuin onak) LANA 10-12. or.

VII. BIZENTA MOGELEN LANA 13. or.

VIII. BIZENTA MOGELEN GUTUNA 14-15. or.

IX. ERANTZUNAK 16-17. or.

ERABILITAKO TESTUAK

- https://bilbozaharra.eus/forum-eta-irakurraldia/bilbo-zaharra-forum/
- https://kritikak.armiarma.eus/?p=6707
- https://ojs.ehu.eus/index.php/ASJU/article/view/5708/5404
- https://www.bilbaopedia.info/bizenta-moguel
- https://zumalakarregimuseoa.eus/eu/ekintzak-eta-zerbitzuak/ikerketa-eta-dokumentazioa/xix.mendeko-pertsonaia-xumeak/vicenta-antonia-mogel?set_language=eu
- https://klasikoak.armiarma.eus/idazlanak/M/MogelBIpuionak.htm
- https://zubitegia.armiarma.eus/?p=bid-27
- https://eu.wikipedia.org/wiki/Txikipedia:Alegia_(literatura)
- https://www.ehu.eus/ehg/literatura/idazleak/?p=715
- https://armiarma.eus/liburu-e/?i=Bizenta%20Mogel,%20Ipui%20onak
- https://www.euskaltzaindia.eus/dok/ikerbilduma/54862.pdf

I. GONBITA: KLASIKOEN XVIII. IRAKURKETA JARRAITUA

BILBO ZAHARRA euskaltegiko ikasle-irakasleok ***Klasikoen Irakurketa Jarraitua*** antolatu dugu hemezortzigarrenez, ikasturtearen amaieran eta "Ikasleen jaia" ospakizunaren barruan. Irakurketa eta jaia.

Literatura-jardunaldi berezia izaten da. Urtean behin, euskarazko liburu *klasiko* bat irakurtzen dugu 250 bat lagunen artean. Irakurle bakoitzak pasarte labur bat irakurtzen du eta, ondoren, hurrengoari ematen dio txanda. Aurten, Arriaga antzokian izango da, goizeko zortzietatik arratsaldeko ordu biak arte.

Aurreko urteetan, Axularren *Gero*, Juan Antonio Mogelen *Peru Abarca*, Jon Miranderen *Haur besoetakoa*, Ramon Saizarbitoriaren *Hamaika pauso*, Arantxa Urretabizkaiaren *Zergatik panpox*, Bernardo Atxagaren *Obabakoak*, Gabriel Arestiren *Harri eta herri*, Joseba Sarrionandiaren *Narrazio Guztiak,* Franz Kafkaren *Metamorfosia,* Itxaro Bordaren *% 100 Basque,* Txomin Agirreren *Kresala*, Anjel Lertxundiren *Otto Pette*, Mariasun Landaren *Ipuin hautatuak*, Bernart Etxepareren *Linguae Vasconum Primitiae*, Saizarbitoriaren *Martutene,* Miren Agur Meaberen *Kristalezko begi bat* eta, 2024an, Kirmen Uriberen *Bilbao-New York-Bibao* irakurri ditugu.

Aurtengoarekin, hemezortzigarrena: Bizenta Mogelen ***Ipui Onac*** (Ipuin Onak). Lan honekin, aitortza egin nahi diogu euskaraz liburu bat argitaratu zuen lehen emakumeari.

Munta handikoa, dudarik gabe, aurtengo **ekainaren 5ean,** eta, beti bezala, Bilboko **Arriaga antzokian** aurrera eramango dugun irakurketa-jaialdia. Hainbat irakurle, berrogeita hamar gizarte-eragile... irakurle zein entzule, ***denok zaudete gonbidatuta literatura eta euskara uztartzen dituen festa honetara.***

Aurreko urteetan egindakoaren erakusgarri, hemen.

II. KLASIKOA LITERATURAN

Klasikoen irakurketa egingo dugula adierazten dugunean, ba ote dakigu zertaz ari garen? Zer da klasikoa?

Hiztegira jotzen badugu, Euskaltzaindiaren hiztegian horrela definituta agertuko zaigu:

Klasikoa, *bereziki literaturan, artean, musikan, dantzan, antzerkian eta zineman, denboraz gaindi eredugarritzat jotzen diren lanak biltzen dituen adjektiboa da.*

Estetikaren ikuspegitik, klasikoaren ideia perfekzioari loturik dago, eta edozein alditako edo arte motatako obrarik onenak adierazteko erabiltzen da.

a. Baina, zer da klasikoa zuentzat? Ahalegindu definizioa ematen; gero, talde txikietan batu eta komentatu.

.....
.....
.....
.....
.....

b. Aurreko definizioak kontuan hartuta, klasikotzat hartuko zenituzke ipuinak eta alegiak (fabulak)? Zergatik?

.....
.....
.....
.....
.....

Hitz egin klasekideekin eta eman, jarraian, zuen iritziz, alegiak klasikotzat hartu ahal izateko arrazoiak:

.....
.....
.....
.....
.....

Komentatu klasekideekin ea bat zatozten.

III. ZER DA ALEGIA (FABULA)?

a. Eman zure definizioa:

.....
.....
.....
.....
.....
.....

b. Jarraian dituzu definizio batzuk:

1. *Egia irudikatzen duen kontaketa laburra. Haren irakasbide morala ia beti animalien bidez irudikatzen dena, gizakien munduari aplikatzen zaio, onbiderako asmo argiarekin.*

Seve Calleja, Alegiak eta Alegialariak (Ipui Onac hitzaurrea)

2. *Alegiak ipuin laburrak dira, normalean bertso errimatuetan kontatuak. Horien protagonistak animaliak diren arren, pertsonen jokabideak izaten dituzte. Pertsonaiek dituzten jokabideen arabera ondorio on edo txar bat izango dute; izan ere, alegien helburua irakurleari irakaspen bat erakustea da bere protagonisten jokabideen bitartez.*

Txikipedia

3. Alegia helburu didaktikoa duen literatura idatziaren azpigeneroa da. Protagonistak hitz egiten duten animaliak izaten dira. Prosan idatziak egon daitezke, baita bertso sorta baten atsotitza izan daiteke edo atsotitz itxura izan dezake.

Wikipedia Entziklopedia askea

4. Alegia hizlariek erabilitako adibide narratiboa da (paradeigma).

Aristoteles

Zein hurbiltzen da gehien zeuk emandakoari? Komentatu inguruko ikaskideekin.

c. Ezagutzen duzu alegiarik? Zein?

.....
.....
.....
.....
.....

d. Kontatu zure inguruko kideei. Zein da alegien eskema? Zer ezaugarri dituzte?

.....
.....
.....
.....
.....

IV. ALEGIAREN EZAUGARRIAK

Wikipedia Entziklopedia askearen arabera, hurrengoak dira alegiaren ezaugarriak:

- Zenbait jokabide etiko sustatzen ditu, zenbait jokabide etiko salatzen ditu.
- Normalean testuaren bukaeran fabularen tesi etikoa laburbildu ohi da: alegiaren erakutsia. Esaldi bat, bi esaldi, bertso labur batean laburbiltzen da alegia osoaren erakutsia.
- Gehienetan testu laburrak izaten dira eta pertsonaia gutxi. Kontrako joera duten bi pertsonaia nagusi askotan: protagonista eta antagonista.
- Ahozko literaturan dituzte erroak eta ahozko kulturara igaro izan dira maiz liburuetatik.
- Animalien pertsonifikazioa.
- Egiten den bizioen, ohitura txarren eta grina txarren deskripzioetan ez da ironia falta egoten. Bertuteen deskripzioetan ere ez.

a. Jarri taldeka eta aukeratu kontatutako alegietako bat. Aztertu eta esan goiko ezaugarriak betetzen dituen ala ez.
b. Ezagutzen duzue alegia horien idazlerik (alegialaririk)? Zein? Horien artean badago euskaldunik? Zein?
c. Eta emakumezkorik?

V. BIZENTA MOGEL

Irakurri testua eta, ondoren, erantzun beheko galderei.

Irakurmena: Nor da Bizenta Mogel?

Maria Bizenta Antonia Azkoitian sortu zen 1782ko ekainaren 6an. Petronila Elgezabal, ama, Zamudiokoa zuen, eta aita, ordea, markinarra, baina Azpeitian zebilen mediku alaba jaio zenean. Aita gazte hil zitzaion, eta Jose Antonio nebarekin batera Markinara joan ziren Juan Antonio Mogel osaba apaizarengana.



Peru Abarka eleberriaren egileak kultura-bideetan hazi eta hezi zituen ilobak, eta badakigu zortzi urterekin latina ikasteari ekin ziotela. Latinean ez ezik, frantsesean, espainieran, filosofian, eta, nola ez, euskaran ere trebatu zen Bizenta. Alabaina, humanitateetan ez ezik, matematiketan eta jakintza aplikatuetan jardutera ere bideratu zuen osabak Bizenta. 22 urte zituela, *Ipui onac* lana (Ipuin onak) argitaratu zuen (1804an), osaba Juan Antonio Mogelek berak jorratua zuen alegien genero didaktikoaren arloan. Lan horregatik hartu izan da Bizenta Mogel emakumezko lehenengo euskal idazletzat.

Lan horretan, Bizentak Esopo greziarraren berrogeita hamar alegia euskaratuta bildu zituen, prosaz idatziak. Horiei osabak bertsotan idatzitako beste zortzi gehitu zizkion. Bizentak literaturak helburu didaktikoa behar zuela zioen, Ilustratuen esakuneari men eginez, eta, horren ondorioz, zentsura jasan behar izan zuen.

1817an, Bilboko Eleuterio Basozabal merkatariarekin ezkondu zen Markinako Erdotza baselizan, eta Abantora joan zen bizitzera. Bertan, Paulo Ulibarri ezagutu zuen senarraren bitartez, eta lan gehiago argitaratu zituen. Horien artean, 1819-1832 urte bitartean Bilboko Santiago elizan eta San Frantzisko komentuan abesten ziren gabon-kantak ditugu. Abanton eman zituen azken urteak ez ziren onak izan. Senarra zendu ondoren, ondasun guztiak koinatuen eskuetara joan ziren eta Bizentak epaitegietara eraman zituen basozabaldarrak.

Abanton, 1854ko irailaren 29an hil zen, 71 urte zituela.

Jon Kortaza
Bilbaopedia

Erantzun galderei beheko taulan. 0 galdera adibidea da:

0. **Non jaio zen Bizenta Mogel?**
   a) Markinan jaio zen.
   b) Azpeitikoa zen familia, baina bera Abanton jaio zen.
   c) Familia ez zen azkoiriarra, baina bera Azkoitian jaio zen.

1. **Zergatik joan ziren Markinara bizitzera anai-arrebak?**
   a) Aita hil zitzaielako.
   b) Aitari Markinan lan-eskaintza egin ziotelako.
   c) Aita herri horretako apaiz berria izan zelako.

2. **Zein izan zen Bizentarentzat Markinan osabarekin bizitzeak ekarri zion onura?**
   a) Osaba apaiza izanik, elizako kontuak ondo baino hobeto ezagutu ahal izatea.
   b) Osaba idazlea izanik, literatura ikasketak egin ahal izatea.
   c) Osabak humanitateetan, hizkuntzetan eta zientzia aplikatuetan trebatzea.

3. **Zein da Bizenta Mogel ezaguna izatearen arrazoia?**
   a) Emakumezkoa izatea.
   b) Emakumezkoa izanik, gizonezkoentzat gordetako eremu batean lanean aritu izana, hau da, literaturan aritu izana.
   c) Garai hartan latina zekien emakumezkoa izatea.

4. **Bizenta Mogel emakumezko lehenengo euskal idazletzat hartua izan da...**
   a) 1804an, osabaren izkribuei azken orraztua emateagatik.
   b) Latinaren ezagutzari esker, 1804an Bizkaiko Aldundian lanean hasteagatik.
   c) Osabarengandik jasotako irakaspenei esker, 1804an, 22 urte zituela, bere lehen lana plazaratzeagatik.

5. **Hurrengo baieztapenetatik, zein da egia?**
   a) Bizentak, Markinan ezkondu eta senarrarekin Abantora bizitzera joan zenean, ez zion uko egin idazteari, eta beste lan batzuk argitaratu zituen.
   b) Bizenta Markinan ezkondu zen, eta bertan bizi izan zen, 71 urte zituela hil zen arte.
   c) Bizenta Markinan ezkondu zen arren, Abanton bizi izan zen, garai hartako edozein emakume ezkonduk bezala, etxearen eta familiaren zaintzaren ardura hartuta.

ERANTZUNAK

0.- C	1.-	2.-	3.-	4.-	5.-

VI. IPUI ONAC (Ipuin onak) LANA

Alegia mendebaldeko tradizioaren literatura-generorik primitiboenetakoa da, Esoporen lana baino zaharragoa, baina zabalduz joan zen XIX. mendean, garai hartan hainbat idazlek genero hori landu zutelako. Euskal literaturari dagokionez, erlijiotik kanpoko generoa berriro piztea eragin zuen. Garaiko beste alegialari batzuk dira: Agustin P. Iturriaga, Juan Antonio Mogel, Samaniego, Tomas de Iriarte...


Bizentak berak hurrengo esaldia idatzi zuen bere liburuaren aurrealdean:

Ipui Onak

Zeinetan aurkituko dituzten euskaldun nekazari eta gazte guztiak irakaste ederrak bere bizitza zuzentzeko.

Elkarrekin, erantzun ondorengo galderei:

- Betetzen du liburu honek orain arte ikusitako alegiaren definizioa? Hitz egin zuon artean.
- Zuen ustez, zein izan zen Bizentaren helburua liburua idatzi zuenean?
- Bizenta Mogel garai hartako (XIX. mendearen hasierako) emakumea zela uste duzue? Zergatik?
- Garai hartan emakume askok zuen ikasteko aukera? Zergatik?
- Alfabetatutako biztanle asko zeuden garai hartan? Zergatik?
- Zergatik uste duzue izan zuela Bizentak ikasteko aukera?
- Zein izan zitekeen Bizentaren arrazoia Alegia aukeratzeko?



Bizenta Mogelek ondo baino hobeto ezagutzen zituen bere garaiko gizartea eta gizarte horrek zeuzkan aurreiritziak. Horregatik, liburuaren hitzaurrean hurrengo hitzak idatzi zituen. Hitz horiek kanta bilakatu zituen Imanol Epeldek.

Entzun kanta bi aldiz, eta bete hutsuneak:

Badakit, entzunaz beste gabe,
neskatxa gazte baten _____
dagoela itsatsirik liburutxo honen
_____
jardungo dutela sinuka (keinuka) ez gutxik,
diotela bere artean
inoren _____ jantzi nahi duela
bele txikiak;
hau da, besteen beharrak
hartu nahi ditudala _____
ez dagokiola neskatxa bati
bururik haustea liburugintzan;
asko duela _____
nahiz jostorratza zuzen erabiltzea.
Nola nik sinetsaraziko diet askori
euskaratu _____
erdaldun jakitunek argitaratu dituzten
_____?
Nolako harrotasuna, berriz, latinezko
hizkuntzarekin liburu
honen asmoa _____?

Har bezate bada euskaldunek
neskatxa gazte baten _____
edo _____ hau. Gauza onik badago,
esan dezatela _____ dela
ez nirea;
okerrik badakuste (badakusate)
_____ niri gainera;
berdin _____ ez du emango sagarrik.

Zortzi urte nituenean,
_____ nire anaia ikasten hasi zela
gure osabarekin latinezko _____
jarri zitzaidan buruan
ikasi behar nuela nik _____
Hala, buruari neke _____
eman gabe,
loari bere _____ emanda,
eta zigor _____ beldurrik ez nuela,


jolasez bezala,
irten _____ nire asmoarekin.

Har bezate _____ euskaldunek
neskatxa gazte baten emaitza
edo presente hau. Gauza _____ badago,
esan dezatela inorena dela
ez nirea;
okerrik badakuste (badakusate)
_____ niri gainera;
berdin arteak ez du emango sagarrik.

Transkribatutako hitzaurrearen egokitzapena:
Zein gauza sinesgaitza neskatxa batengan!
Euskaltzaindia
NOEREN ONTZIA
Hezkuntzarako Euskal Testuak

Jarri taldetan, eta komentatu hurrengo galderak:

- Zein da hitzaurre horren gai nagusia?
- Noren esku zegoen garai hartan literatura egitea?
- Zein zen emakumeen rola garai haietan?
- Bizenta Mogel garaiko emakumea iruditu zaizue? Zergatik?
- Zein da/dira zuen ustez Bizenta Mogel ezaguna izateko arrazoi nagusia/ak?



VII. BIZENTA MOGELEN LANA

Jarraian duzuen liburuaren pasartea irakurri, eta **aukeratu beltzez markatutako hitzen baliokideak** beheko taulatik.

Txakurra eta haragi zatia

Txakur batek bere ahoan haragi zati bat zeukala, **igaro (1)** nahi izan zuen ibaia batetik bestera. Igerian zihoala, ikusi zuen uretan ahoan zeraman okela zatiaren **geriza (2)**, eta **begitandu (3)** zitzaion zela benetako haragia. Damu ematen zion ez **harrapatzea (4);** eta **ahazturik (5)** ahoan zeramanaz, murgildu edo mus eginik uretan, **dendatu (6)** zen harrapatzera. Irekia zuen horretarako ahoa; erori zitzaion ahoan zeukan haragia; geriz hutsari kolpe eginda, ez zuen ezer atera, eta galdu zuen berea. Abiatu zen **amorruz (7)** esaten, zerk erabili nau gehiagoren bila? **Zorigaiztoan (8)** galdu dut nerea.

Ipuin onek esan nahi du bakean gorde behar dugula garbiro duguna. Galdu ohi dela bide onez dagoena, gehiegi eduki **nahiaz (9)**. Hobe dela, esan ohi den bezala, etxatxori, edo kurloi bat eskuan, arrano hegatua baino; Guztia bilatzea dela guztia galtzea; bakoitzak eutsi behar diola bereari, eta **larga (10)** inorenari.

Ipui onac. Bizenta Mogel (moldatua)

	A	B	C	D
1	iragan	aurreratu	salto egin	irudikatu
2	gezia	itzala	ertza	geruza
3	bururatu	kezkatu	iruditu	barneratu
4	antzematea	atzentzea	isurtzea	atzematea
5	gogaiturik	ihardetsirik	ahantzirik	azturarik
6	tenkatu	tematu	ezkutatu	bermatu
7	erneguz	akiduraz	nazkaz	soseguz
8	Ezbeharrean	Nahigabean	Dohatasunean	Zorabioan
9	kuraiaz	aldartez	asmazioz	gurariz
10	laga	luzatu	eskaini	eskatu

ERANTZUNAK

1.-	2.-	3.-	4.-	5.-
6.-	7.-	8.-	9.-	10.-

VIII. BIZENTA MOGELEN GUTUNA

Aurreko ataletan, Bizenta Mogelen garaiko emakumeen inguruan aritu gara. Ziur ez zela erraza izan berarentzat liburua argitara ematea. Jarraian duzue argitaletxeko arduradunari idatzi zion gutun moldatuta:

Don Biktor Munibe eta Arangurengori

Osasuna, bakea eta urte luzeak

Nire zalduntxoa:

Hartu ditudanez gero gogoak argitara emateko Ipuin onen liburutxo bat, erabaki behar nuen nori bere eskaintza egin. Buruari neke gogor eta gogaikarririk eman gabe, nori asmatzen, zu izan behar zinen, nik hartu behar nuena. Ipuinok atera nahi ditut gaztetxo eta nekazarientzat edo Bizkaian esan ohi den bezala, nekezaleentzat. Zure urte laburrak gaztetxoen artean ipintzen zaituzte.

Badakit jatorriz bezala dakarzula nekazariei asko nahi izatea eta aurpegi gozatsua erakustea. Ezagutu zutenek izen oneko zure Aita-Aita Jaun D. Xabier Maria Munibe ta Idiakezko, ez daukate ahazturik bere lautasuna nekazari guztientzat: nola ematen zien eskua estu-estu eta laztantasunez baserritarrei. Zenbat bere errenterok esan ohi zuten: «Ez dugu inor, gure nagusiak baino agur gozoagorik egiten digunik!».

Orain bada, zu zara guztiz Ipuinzalea. Ahoa zabalik entzuten egoten zara aspertu gabe Aita jaunak kontatzen dizkizunean. Lehiatzen zara zeu ere buruz ikasten eta besteei gero kontatzen. Berriz euskara egiten duzu, dela Giputzen, dela Bizkaitarren gisan. Guztira zaude egina. Beraz, alde guztietatik zor nizun zuri liburu honen eskaintza edo presente labur hau.


Har ezazu bada nire borondate onaren agerpena eta gelditzen da zure agindura, zure eskutxoari muin egin naiz.

Bizenta Antonia Mogel ta Elgezabal

Gutuna irakurri ondoren, erantzun galdera hauei:

- Zer uste duzue zuek, zein da gutun horren helburua?
- Zailtasun berberak izango zituen gizon batek eta emakume batek idazki bat argitara eramateko?
- Zergatik aukeratu zuen Mogelek Munibe bere lana plazaratzeko?

Erantzun Bizenta Mogelen gutunari, zu zeu Biktor Munibe izango bazina bezala. **Idatzi, gutxienez, 140 hitzeko gutuna**. Bertan, adierazi Mogelen liburua argitara emango duzun ala ez. Arrazoitu zure erantzuna.



IX: ERANTZUNAK

V. BIZENTA MOGEL

0.-C	1.-A	2.-C	3.-B	4.-C	5.-A

VI. BIZENTA MOGELEN LANA

Badakit, entzunaz beste gabe,
neskatxa gazte baten **izena**
dagoela itsatsirik liburutxo honen
aurrean,
jardungo dutela sinuka (keinuka) ez gutxik,
diotela bere artean
inoren **lumaz** jantzi nahi duela
bele txikiak;
hau da, besteen beharrak
hartu nahi ditudala **niretzat**;
ez dagokiola neskatxa bati
bururik haustea liburugintzan;
asko duela **gorua**
nahiz jostorratza zuzen erabiltzea.
Nola nik sinetsaraziko diet askori
euskaratu **ditudala**
erdaldun jakitunek argitaratu dituzten
ipuinak?
Nolako harrotasuna, berriz, latinezko
hizkuntzarekin liburu
honen asmoa **agertzea**?

Har bezate bada euskaldunek
neskatxa gazte baten **emaitza**
edo **presente** hau. Gauza onik badago,
esan dezatela **inorena** dela
ez nirea;
okerrik badakuste (badakusate)
egotzi niri gainera;
berdin **arteak** ez du emango sagarrik.

Zortzi urte nituenean,
ikusirik nire anaia ikasten hasi zela
gure osabarekin latinezko **hizkera**,
jarri zitzaidan buruan
ikasi behar nuela nik **ere**.

Hala, buruari neke **gogorrik**
eman gabe,
loari bere **orduak** emanda,
eta zigor **zaurigarrien** beldurrik ez nuela,
jolasez bezala,
irten **nuen** nire asmoarekin.

Har bezate **bada** euskaldunek
neskatxa gazte baten emaitza
edo presente hau. Gauza **onik** badago,
esan dezatela inorena dela
ez nirea;
okerrik badakuste (badakusate)
egotzi niri gainera;
berdin arteak ez du emango sagarrik.

VII. BIZENTA MOGELEN LANA

BALIOKIDEAK

1.-A	2.-B	3.-C	4.-D	5.-C
6.-B	7.-A	8.-A	9.-D	10.-A